



Ezker abertzalea: «Bozkek balio izugarria daukate»

BALANTZE ONA ▶ Balorazio «ezin hobe» egin dute kideek Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeez

AURRETIK ▶ Eskualdean «lehen indarra» izan da HZ: «28 herrietatik 23tan jaso du bozka gehien» ▶ 2

MANU AZKARATE ▶ PRESO OHIA

«Erabakia alde aurretik hartua zutela iruditzen zait»

Herenegun utzi zuten aske tolosarra ▶ 3

Etxeberria aske uzteko eskatu dute ehunka lagunek

VILLABONA ▶ Preso billabonatarra gose greba ari da egiten «entregatua» izan daitekeelako ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Gipuzkoako finalean dira eskualdeko bi segalari

Beste hiru ere sailka daitezke bihar ▶ 6

IBARRA ▶

Gazte Festen jarraipena gaurkoan

Askotariko ekitaldiak izango dira egun osoan haur, gazte eta helduentzat ▶ 5



Diesel hilabetea Citroën-en Liderra HDI diesel teknologian, eta eskaintza onenak

CITROËN C15	CITROËN BERLINGO	CITROËN JUMPY BERRIA	CITROËN JUMPER
C 15 1.9D Furgoa 8.875 €* 2.400€	Berlingo 1.9D Combi a CG Pack-arekin 11.950 €* 3.500€	Jumpy 1.9D Comfort Furgoa 13.790 €* 3.000€	Jumpy HDI 85 29C 15.090 €* 4.000€

*Hortaz geroztik, erabaki gero 3000 litroko gasolinaren prezioaren arabera. *Hortaz geroztik, erabaki gero 3000 litroko gasolinaren prezioaren arabera. *Hortaz geroztik, erabaki gero 3000 litroko gasolinaren prezioaren arabera. *Hortaz geroztik, erabaki gero 3000 litroko gasolinaren prezioaren arabera.

www.citroen.es

IZOVI, S.A. CITROËN Kontzesionario Ofiziala • Industriaidea, z/g. • Tel.: 943 65 18 42 • Anoeta-Tolosa

TOLOSA ► POLITIKA

«Balio izugarria dute bozkek»

Hauteskundeetako emaitzen «balantze ezin hobea» egin du ezker abertzaleak

LEIRE MONTES

Egin berri diren Europako Legebiltzarreko hauteskundeetako emaitzen balantze «ezin hobea» egin dute Tolosaldeko ezker abertzaleko kideak.

Herenegun iluntzean egin zuten agerraldia Tolosako udaletxean; «pozik» mintzatu ziren, jasotako bozkek «izugarriko balioa» dutelako: «Ez da erraza izango Europar hau bezalako kasurik aurkitzea: 118.000 lagun baino gehiagok beste alderdi eta erakundeek balio gabetzak hartzen zuten bozka hauteskontzietara eramanez. Bozka horrek agerian utzi du bere gordintasunean herri honen egoera ez normalizatua. Argi eta garbi ikusi ahal izan da gure ideien ilegaltasunaz aurre egiteko prest gaudela, eta gurekin batera herritarren oso sektore zabala eta ahanztezina».

Hauteskundeetako «hoztasunaren eta abstentzioaren aurrean» ezker abertzaleak «harror egoteko arrazoirik» baduela esan zuten: «Beste alderdiek izugarriko jipoia jasan dute, eta legez kanpo utzitako Herriarren Zerrendak oso emaitza onak lortu ditu. Ezker abertzalearen zintotasun eta leialtasunean datza arrazoiak».

«Eskualdean lehen indarra»

Tolosaldean HZ lehen indarra izan dela gogoratu zuten, bestalde: «28 herrietatik 23tan jaso du HZ bozka gehien, bitan EAJrekin berdindu gara, eta beste hiru herritan bigarren indarra izan gara».

Haien esanetan, «zenbait alderdiri emaitza hauek ezkutaztea gustatuko litzaieke. Ezin dute, ordea. Ez dugu onartuko. Tolosaldeko bozka hauek egiten duten salaketari erantzun



Tolosaldeko ezker abertzaleko kideak, eginiko agerraldian. LEIRE MONTES

diezaitela egun haienak ez diren aulkietan eserita dauden udal gobernukideek».

Politikari horiek herritarren hitza ez dutela errespetatzen salatu zuten: «Nola ulertu, bestela, egun hauetan egindako adierazpenak? Gu existitu ez bagina bezala, Zapatero eta Raxoik markatutako ildoari jarraitu diote. EAJ eta EAtik hasita. Erraza egiten zaie ilegaliza-

zioa aho txikiar salatzea gero horretaz aprobeztatzen diren bitartean. Zertan desberdintzen dira praktikan, beraz?».

Azkenik, Galiziako Nos Unitate Popularreko kideen elkartasuna eskertu zuen Tolosaldeko ezker abertzaleak. «Ez EAJk, ez EAK, ez Aralarrek, ez EBk ez dute ezer egiteko ausardiarik izan. Eta urrats hori eman zezaketen».

TOLOSA ►

Ikasturte amaierako saioa, dantza ikasleekin

'Oz aztia' ipuina eta koreografiak eskainiko dituzte, gaur, 16:30ean, Leidorren

JOXEMI SAIZAR

Ikasturte osoan ikasten eta lanean aritu ondoren, Katixa Perea eta Ana Irazusta irakasleekin Kultur Etxeko dantza tallerrean aritu diren 140 ikasle inguruk —Kultur Etxeko taller jendetsuena da— emanaldia eskainiko dute gaur, 16:30ean, Leidorren.

Ikuskizunak bi zati izango ditu: lehen zatian irakasleek prestatutako koreografiak ikusi ahal izango dira, eta bigarrenean *Oz-eko aztia* ipuina taularatu dute.

Tailer honetan dantza klasiko edo balleteko bederatzi talde daude. 3 eta 6 urte arteko ikasleak Irazustarekin aritzen dira, eta 7 urtetik 13 urtera bitartekoak Perearekin. Dantza garaikideko beste bi talde daude: ikasle helduak dira, eta talde bakoitza irakasle batekin aritzen da.

Bi irakasleek prestatutako koreografiak eskainiko dituzte balleteko talde guztiek —13 dira— lehen zatian. Azken koreografian —*Delirios ibéricos*— flamenko ikutua sartu dute, eta Donostian irakasle den Soledad Ruz bailloraren laguntza izan dute. Bigarrenengoan, berriaz, ikasle guztiek parte hartuko dute *Oz-eko aztia* ipuinean. Dantza aditueneke egingo dituzte paper garrantzitsuenak.

«Denetik ikusi ahal izango da taula gainean, oso ikuskizun anitza da. Oso ondo gelditu da, eta ikusleentzat erakargarria izango dela iruditzen zaib», adierazi dio Hitzari Katixa Perea irakasleak.

IBARRA ► UDALA

Udal langileek lan uzteak egin zituzten atzokoan

Lan-hitzarmenaren inguruan negoziaketa mahaia osatzea eskatzen diote Udalari

D. GIBELALDE

Ibarrako Udaleko langileek 12:30etik 14:00etara eta 15:30etik 17:00etara lan uzteak egin zituzten atzo Udalari lan hitzarmena negoziatzeko eskubidea dutela eskatzeko. Udalaren erantzun baten zain dira langileak; asteartean batzar bat egingo dute langileek, eta atzo bezala lanuzteak egingo dituzte ordu horietan.

Ibarrako Udalari negoziaketa mahaia osa dezala eskatzen diote langileek lan-hitzarmenari buruz hitz egiteko, «ikusirik Ibarrako Udalak aurretik egindako eskaerari emandako erantzuna tokiko gobernu batzarrek 2004ko ekainaren 2an egindako bilkuran: Langileen ordezkariak adieraztea Ibarrako Udalak EUDEL euskal udalen elkarteko kide dela, eta beren langileen lan-baldintzak Toki



Udal langileek atzo egin zuten kontzentzazioko une bat. D. GIBELALDE

Administrazioaren sindikatu-tako ordezkariarekin negoziatzen duena dela. Beraz, sindikatuak eta EUDELek lan-hitzarmena sinatzen ez duten bitartean, gobernu batzarra

udal mailan ez dela negoziatzen hasiko lan-hitzarmena. Erabaki horren bidez langile orok duen negoziatziorako eskubidea urratu du Udalak negoziatziorako bidea itxita utziz».

hilberriak ► eskalak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Ramon Sagastibeltza Vivanco

Zure lehengusuak:
Iñigo, M^a Jesus eta Iraia

TOLOSA, 2004ko ekainaren 19a

hilberriak ► eskalak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Ramon Sagastibeltza Vivanco

Gure artean denbora gutxi egon arren,
gogoan izango zaitugu

Ikaztegiak irakasle, ikasle eta gurasoak

TOLOSA, 2004ko ekainaren 19a

† **ESKERTZA ►**

DIAZ GOROSTEGI [†]**tar**
ANTONIO jaun hil berriaren senideen partetik, eskerrak samin agurra bidali zenuten eta hileta elizkizunetara etorri zirenen guztioi.

Bihar, IGANDEA, 12:30ean haren aldeko meza izango da Aldabako parroki elizan.

Aldaba, 2004ko ekainaren 19a

MANU AZKARATE ▶ PRESO OHIA

«Boterea duenaren burutik zer pasatzen den jakitea eta jarrerrei logika bilatzea oso zaila egiten zait»

Gertatutakoa «barneratzen oraindik» baina etxean egotea-
gatik «oso pozik» mintzatu zaio
Hitza-ri Manu Azkarate.

Oraindik gertatutakoak guztiz jabetu ezinda omen zaude...

Bat-batean dena aldatu da. Fisikoki nekatuta nago, baina batez ere burua dut nekatutik. Berri asko izan dira, denak batera eta ezustean, gauza asko egin nahi ditut...

Zuretzat ere ezustekoa izan da.

Ez nuen inolaz ere espero. Goizean Javier Gomez Bermudez epailea nirekin hitz egitera etorri zen. Eta jarrera erabat aldatuta, gainera.

Zeri buruz hitz egin zenuten?

Aurretik ezarri nahi zizkidan baldintzak gogoratu egin zizkidan berriro. Baina, pixkanaka,

neure erabakian tinko jarraitzen nuela ikusita, amore ematen joan zen. Nirekin jolasean ari zela pentsatu nuen, sako-neko arrazoirik ez zuela ni barruan edukitzeko; ordura arte harentzat ezinbesteko baldintzak ez ziren beharrezkoak ordutan. Erabakia aldeztu aurretik hartuta zuela iruditzen zait. Ezarritako baldintza onartu nuen, nire aurrean deitu zion idazkariari ni askatzeko agindua bidera zezan.

Zer baldintza bete beharko duzu orain?

Tolosako Ertzaintzaren egoitzara joan behar dut egunero.

Nola azalduko zenuke epailearen jarreraren erabateko aldaketa hori?

Ezarri nahi zizkidan baldintzak onartzeari uko egin nio-

nean banekien zigor osoa bete arte ez nintzela aterako; hartutako erabakiagatik ordaindu beharreko prezioa izango zen. Goizetik gauera jarrera aldatu du. Boterea duenaren burutik zer pasatzen den jakitea eta jarrerrei logika bilatzea oso zaila egiten zait.

Arlo askotatik eskaini dizute babes.

Nik uste dut horrek guztiak presioa areagotu egin duela. Tolosako plataformaren lana, erakundeen jarrera, Tolosako Udala eta alkatea barne, Amnesty International-ek tosten bidali zuen... Ikusi dute aldarrikapenak esparru askotik heldu direla, era guztietako jendea bildu dutela, ideologia desberdinetakoa, anitza. Oso prozesu lotsagabea izan da;

eta, luzarora, hainbat gezur justifikatzea oso zaila da.

Nolakoak izan dira hilabete hauek espetxean?

Tentsio handikoak. Erizaindegiak kalte izugarria egin dit, mesede egin baino. Isolatuta egon naiz. Nirekin harremanik ez izateko esaten zieten preso arruntei, zigortuak izango zirela bestela; beldurrez egoten ziren nirekin hitz egiteko, zigorrak jasoko zituztelako. Ni ere baldintzatu egin nau horrek. Klandestinitatean aritu behar izan dugu, komunean geratu hitz egin ahal izateko... Oso gogorra da.

Aldatzeko itxurarik ba al du?

11 urte kalean egon eta gero espetxe egoera dezente gogortu dela konturatu naiz. Tentsioa izugarria da. Eta PSOEre-



HITZA

kin ere berdin jarraituko dugu. Ez dago aldaketarako boron-daterik. Aldarrikapenekin jarraitu egin behar dugu.

Zer egiteko gogo duzu?

Kapritxo txikiak dira, gauza xumeak, baina orain gehiago bolaratzen ditudanak: etxean la-sai egon, familiarekin gozatu, benetako arraztuz frijituak eta oilaskoa jan, lagunekin pote batzuk hartu... ◀

TOLOSA 750 ▶

Tolosak 750 urte

Tolosa sortu zela 750 urte beteko dira 2006ko irailaren 13an; urteurrena antolatuko duen fundazioa eta irudia aurkeztu dute

LEIRE MONTES

«Tolosa sortu zela 750 urte beteko dira 2006ko irailaren 13an, eta data hau aitzakitzat hartu nahi dugu herriaren irudia indartzeko eta ezagutarazteko, bertakoon autoestima maila igotzeko, bizi kalitatea hobetzeko, gaztetzeko».

Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak kideek taldearen ezaugarriak eta irudia aurkeztu zituzten atzo. Fundazioaren lehen patronatua osatua dago, beharrezkoa baita Fundazioen Erregistroan izena emateko; baina helburu nagusia patronatua erabat osatzea eta zabaltea da, ahalik eta lasterren. Ondoren, egitaraua eta epeak zehazteari ekingo diote.

«Herriar, elkarte eta erakunde publiko nahiz pribatuaren arteko eztabaida sortzea eta proposamenak biltzea dugu xede, eta horretarako informazioa eskaini eta guztien parte-hartzea bultzatu nahi dugu».

Lau dira ardatzak: «Herriarrok Tolosaren historiaz jabetzea, ospakizun zabala eta herrikoia egitea, urteurrenak herriaren etorkizunari utziko dion ondarea zehaztea eta martxan jartzea, eta indarrean



Txetxo eta Jon Gaztañaga aita-semeak, irudiarekin. LEIRE MONTES

dauden ekimenak indartzeko». Martxan dauden proiektu batzuk Fundazioaren aurrekontutik ordainduko dira, nahiz eta berak ez koordinatu. Lehena, Juan Garmendia Larrañagaren *Tolosa Zahar-Berriak* liburua, asteartean aurkeztuko dena.

Irudi klasiko eta modernoa

Txetxo eta Jon Gaztañaga aita-

semeak dira Fundazioaren irudiaren egileak. Irudi klasikoak eta modernoa egin dute, aldi berean: «Dorrea, gaztelua da oinarria, Tolosarekin lotura handia duena. Eta ukitu klasiko hori arintzeko, abstrakzioa egin dugu, dinamismoa bilatu. Festa ukitua emateko kolore gorria gehitu diogu. Irudiaren aldakortasunari ere garrantzia handia eman diogu».

Beti nahi
jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikieta berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremente-terri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

XAKEA ▶

Alebinak hirugarren izan dira Kutxa Txapelketan

Bihar goizean Enrique Pinedaren omenezko xake lehiaketa izango da Zerkausion

ERREDAKZIOA

Igandean eskolarteko Kutxa Xake Txapelketako finala jokatu zuten Azkoitia. 16 talde alebin sailkatu ziren, horien artean Villabona eta Tolosako jokalariez osatutako Jesusen Bihotzako bi taldeak.

Finala kanporaketa bidez jokatu zuten; oso garrantzitsua zen lehen txandetan irabaztea. Halaxe egin zuten X. Corredera, A. Alkorta, J. Claque eta A. Arruek osatzen zuten taldeak. Lehen bi kanporaketak irabazita, finalerdietarako sailkatu ziren. Galdu egin zuten orduan, baina azken kan-

poraketa irabazi eta hirugarren bukatu zuten.

A. Intxaurren, J. Mendia, J. Ezeiza eta I. Berakoetxeak osatzen zutenak zorte okerragoa izan zuten. Bigarren kanporaketa irabazita zeukaten arren, huts egin eta galdu egin zuten. Hurrengo bi kanporaketetan erraz irabazi arren, hamahirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Bihar, sanjoanaren barruan, Tolosako Xake Elkarteak antolatuta, XXXI. Nazioarteko Lehiaketa jokatu du eta taldeka Zerkausion, 10:00etan. Enrique Pinedaren XXVIII. Oroimenezko lehiaketa da.

Zunbeltza
2004ko irailaren 13a

Musika taldeen kamixetak salgai

- Linkin Park
- Metallica
- Mago de Oz
- Su ta Gar

Arostegieta, 11 • TOLOSA
Tel.: 943 67 51 40

ARAMBURU

Salgai (Irura). Duplex-a salgai Etxezarreta kalean.

Alokatzeko (Salou). Bi logela dituen apartamentua, 6 lagunen-tzat. Igerilekuekin, Hondartza gertu.

Alokatzeko La Pineda (Salou). Apartamentua alokatzen da. Hondartza gertu.

Alokatzeko (Tolosa). Denda bezala egokitua dagoen lokala alokatzen da Laskorain kalean.

Alokatzeko (Tolosa). 145m²-ko bulegoa Larramendi kalean.

Alokatzeko (Irura). Garajeak Mikel Goi Aingeru enparantzan

943 65 17 13 / 677 46 09 16

VILLABONA ▶ GIZARTEA



Jende ugari bildu zen atzo Villabonako plazan Lander Etxeberriaren askatasuna eskatzeko. G. AZKUE

GARAIZ AZKUE

Jende ugari bildu zen atzo Villabonako kaleetan Lander Etxeberria billabonatarren askatasuna eskatzeko. Manifestazioan, Lander Etxeberriaren senitartekoak, Lander Etxera plataformako eta Etxerat-eko kideak, Etxeberriaren lagunak eta herritar ugari bildu ziren. Manifestazio bukaeran, Lander Etxeberriaren eskubideen aldeko idatzia irakurri zuten antolatzaileek.

Etxeberriak ekainaren 29an beteko du zigorra eta, «Espainiako polizia entregatua izateko arriskua» duela azaldu du Lander Etxera plataformak.

Entrega arrisku hori delata eta, Lander Etxeberria Villabonako presoak 20 egun daramatza gose greban; maiatzaren 31ean ekin zion baraildiari eta dagoeneko hamar katu galdu ditu. Gainera, espetxean zela, gaixotasun larria diagnostikatu zioten.

Maiatzaren bukaeran jakinarazi zion Frantziako kartzelata-

Etxeberriaren aldeko manifestazioa egin dute ehunka lagunek

Etxerat-ek eta Lander Etxera plataformak deituta zegoen; 20 egun daramatza jada Lander Etxeberriak gose greban

ko batzordeak ekainaren 29 bukatuko zuela zigorra Draguignaneko (Frantzia) espetxean. Lander Etxera plataformak aipatu duenez, «entrega gauzatuko balitz, Frantziako estatuak torturaren atzaparretan jarriko du billabonatarra. Amnesty International bezalako erakundeek ere neurri hau salatu dute».

Etxeberria 2001ean atxilotu zuten, eta 2002an epaitu ondoren, lau urteko kartzela zigorra

eta estatu frantsesean bizitzeko debekua jarri zion Pariseko epaitegiak.

Sinadura bilketa

Egoeraren berri izan orduko, billabonatarrek sinadura eta atxikimendu bilketa jarri zuten abian, ondoren, Frantziako organismo eta agintariei helarazteko. Hasiera batean 1.000 sinadura biltzeko helburua jarri bazuten ere, jada ia 2.000 sina-

dura jaso dituzte presoaren askatasuna eskatuz eta ez deztela entregatu eskatzeko.

Aske uzteko eskaera horien artean, Marie-Jo Cermolacce, Marsellako (Frantzia) eskualdeko kontseilariak helarazitakoa ageri da. Cermolacce-k, Frantziako Barne ministroari eta Justizia ministroari bidali dizkie gutun bana, billabonatarra Espainiako poliziaren esku ez uzteko eta Etxeberria aske gera dadin eskaera eginaz.

ANOETA-IRURA ▶

Ikasturte amaierako festa izango dute gaur

09:00etan hasiko da festa ibilaldiarekin; emanaldiak eta bazkaria izango dira

G. AZKUE

Ikasturte amaierako festa egingo dute bihar Irurako eta Anoetako ikastetxeek Anoetan. 09:00etan hasiko dira, ibilaldi neurtuarekin. Bi orduren bueltan itzuliko dira ikasle eta gurasoak.

11:30ean kalejira egingo dute Anoetako plazatik; bate-tik, LH3 eta DBH4 bitarteko ikasleak ariko dira, eta beste-tik, 2 urteko gelatik LH2ko gela arte. 12:00etatik 14:00ak bitarte, haurrek ikasturtean zehar egindako lanen erakusketa ikusteko parada izango dute bertaratzen direnek. 12:30ean hasiko da haurren emanaldia, eta ondoren, bazkaria izango dute. 400 lagun inguru bilduko dira igandean Ikastolan bazkalitzeko. Gogoratu bakoitzak bere kubiertoak eraman beharko dituela.

Arratsaldean, 16:00etan, ibilaldiko eta urtean zehar izandako ekintzen sari banaketari ekingo diote. Festa, haur eta helduentzat prestatutako jokoekin amaituko da.

Ikastetxeko arduradunen esanetan, «gurasoen partehartzea erabatekoa da. Batzuz bazkarirako paella prestatuko dute, eta beste batzuz, mahaia eta aulkiak jarri eta kendu egingo dituzte».

VILLABONA ▶

Mendi ibilaldia egingo dute bihar herriko gazteek

G. AZKUE

Villabonako Onddo Gazte Asanbladako kideek mendi irteera antolatu dute. Gaur abiatuko dira guztiak 09:00etan. Ibilaldian, AHT pasatzen den inguruak igaroko dituzte. Gaztetxeko kideek joan nahi duten guztiak gonbidatuta daudela jakinarazi dute.

Exkabazioak Lur mugikorrak, eskalerrak eta Garraioak
Mug.: 67 37 35 30
Telf.: 943 65 07 21
Telf./Fax: 943 65 33 79
Erosketa Pk 2-1-erbas
Barrio 3k 1-73

PERU, S. L.

KARLATZ
Garagardotegia
Euskal-Herria, 6
Tel. 943 67 56 36

ondo pasa
herriko festetan!

20400 IBARRA
(Guipuzkoa)

Komertziala
Urrutibeazcoa

HARAKINTZARAKO ETA ELIKADURA INDUSTRIARAKO MAKINERIA

Euskal - Herria, 16-2 behea
20400 IBARRA (Gipuzkoa)

Telf. 943 67 17 77
Faxa 943 67 44 78
Telf. Mugikorra 607 24 23 01

psikomotrizitatea
psikologia

- Psikomotrizitate atzerapena
- Portaearen aldaketa
- Blokeo emozionala
- Arreta zailtasunak
- Hiperaktibitatea eta inhibizioa

P.Gorosabel, 40-18
TOLOSA • 943 69 82 65
mug.: 626 176 522

IBARRA ▶ JAIKAK

Gazte Festen baitan, ekitaldi eta ikuskizun ugari izango dira gaur eta bihar herrian

Gaurkoan, ume jolasak, mus txapelketa, txokolatada, tortila jatea, dantzariak, musikariak, bertsolariak eta musika kontzertuak izango dira, besteak beste

DANI GIBELALDE

Egitarrak oparatu prestatura, uneoro ekitaldiak izango dira gaur Ibarren, Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Festen baitan. Gazteentzat zuzendutako ekitaldiak bai, baina herri guztientzat direnak ere badira. Atzo hasi ziren festak, txupinazo, perku-poteoa, sokatira eta kontzertuekin. Halaber, jai giroa hasi besterik ez da egin, bihar arte makina bat ikuskizun izango baitira herrian.

Gaur goizean ume jolasak izango dira plazan. Arratsaldean, mus txapelketa izango da Sendi Ekintzan. Izen-ematea txapelketa hasi aurretik izango da, eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du. Sariak honakoak izango dira: lehenengoentzat, txapelak, arku-mea eta bi ardo botila; bigarren sailkatuentzat bi txuleta eta bi ardo botila eta hirugarrenentzat bi ardo botila. Jarraian, Sendi Ekintzaren eskutik, tortila jatea eta txokolatada izango da bertaratzen diren guztientzat. Ohi bezala, tortila erraldoi bat egingo dute, eta musutruk banatuko dute plazan diren guztien artean. Ondoren, Zizurkilgo pailazo talde bat izango da haurren gozamenerako; hain zuzen, Denbora taldeko Txuku, Pintto eta Ttinto egongo dira.

Arratsaldeko ekitaldirik arrakastatsuenetakoa bat egingo da 18:30ean. Herriko Alurr dantza taldekoek euren dantzak eskainiko dituzte herriarrak aurrean; Amaro taldekoek ere euren emanaldia taularatuko dute gainerakoek amaitzean. Alurr-ekoek gonbidatuta, gauean elkarrekin afalduko dute bi taldeetakoek.

Alurr-ekoek lan handia egin dute gaurko ikuskizuna prestatzen: jaialdi txiki moduko bat egingo dute. Lehenik, haurrek eta aurtentzako sartutako zenbait mutilek dantzatu dute agurra eta ondoren helduek arratia bat. Jarraian, Alurr-eko talde desberdinek beste hamaika dantza eskainiko dituzte. Ekitaldi amaieran, askaria izango da denentzat. 19:30ean, Loatzo musika eskolako talde



Kale bazterrak alaitu zituen atzo Mulambo taldeak. Herriar ugari bildu zen perku-poteoan. D. GIBELALDE

instrumentala ariko da plazan; instrumentu ugari erabiliz, saio atsegina eskainiko dute.

Ohi bezala, gauean bertso saioa izango da. Aurreko urteetan Emeterio Arresen egiten zen saioa, baina aurtengoan tokiz aldatzea erabaki dute; gaur, Belabietako kiroldegiko frontoian izango dira bertsolariak. Antolatzaileek aipatu dutenez, eguraldi txarra eginez gero Emeterio Arresen ez dago ikusleentzat aterpe handirik, eta kiroldegiko frontoia eroso-agoa da. Bailarako bi bertsolari —Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikano— eta beste bi gazte —Algortako Xabier Paia eta Hendaia Miren Arretxe— ariko dira.

Gauean musika izango da nagusi. Gasteizko Latex taldeak kontzertua emango du pla-

zan, eta ondoren, Anoetaldeko Nekin taldearekin dantzialdia izango da. Gauean zehar, Atarrabiako Gas taldea Gaztetxea eta txosna ingurua animatzen ariko da; suarekin jolastuz emango dute ikuskizuna. Suzko kateak, bolak, mazak... erabiliko dituzte. Su jolas horiek xarma gehiago izaten dute gaez, antolatzaileen iritziz.

Gazte bazkaria bihar

Bihar goizean poteo masiboa izango da eguerdi aldera. Ondoren, plazan bazkaria izango da. Eguraldi txarra eginez gero, Gaztetxean izango da bazkaria, eta txartelak aurretik erosi behar dira Atari tabernan, 5 eurotan. Urtero beste tokietak gazte asanbladako kideak gonbidatzen dituzte Ibarra-koek,

gazteen arteko harremanak bultzatzeko. Aurtentzako Gazte Asanbladako 30 bat lagun etorriko dira, eta eskualdeko gazte guztiak bazkarian parte hartzeko gonbidatuta daudela diote. Gazteen harremana sakontzeko jolasak izango dira arratsaldean, eta haurren aurka globo ere gerra antolatuta dute. Iluntzean, Stupenda Jones eta Automatik Kalashnikov taldeen kontzertua izango da Gaztetxean.

Gure bizia zuen minbizia le-

EGITARAUA ▶

GAUR

11:30. Ume jolasak plazan.
16:30. Mus Txapelketa, Sendi Ekintza elkartearen. Buruhandiak, plazatik.
17:00. Tortilada eta txokolatada, Sendi Ekintza elkartearen eskutik.
17:30. Denbora taldeko Txuku, Pintto eta Ttinto pailazoak.
18:30. Alurr eta Amarozeiko dantza taldeen emanaldia plazan.
22:30. Bertso saioa Belabietako pilotalekuan: Jexux Mari Irazu, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Paia eta Miren Arretxe.
23:00. Latex taldearen kontzertua plazan. Ondoren, dantzialdia Nekin taldearekin. Atarrabiako Gas taldea Gaztetxe eta txosnagune ingurutik kalea animatzen.

BIHAR

12:30. Poteo masiboa.
14:30. Gazte bazkaria plazan; txartelak aurretik erosi.
18:30. Gazte jolasak eta globo gerra, plazan animatzen den guztientzat.
21:00. Kontzertua Gaztetxean; Stupenda Jones eta Automatik Kalashnikov.

lotzat hartuta, XXXIV. Gazte Festak dira aurtengoak. Ibarra-ko Gazte Asanbladako antolatzaleek eginiko leloaren arrazoia honakoa da: «Guk antolatu edo pentsatzen dugun guztia Udalak atzera botatzen duela, min egiten diola, alegia. Ikustea gazte batzuk gai direla horrelako eta bestelako gauzak pentsatu, eta pentsatzen dutena aurrera eramateko».

elketa
jateketa
Tel. 943 65 39 92

Mahaia
erreserbatzeko
deitu:
943 65 39 92
607 991 224

ELEKTRIZITATEA

MENDIA

Euskal - Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80

ibarra
Argi-Lanak

Apai-Erreka, 5
20400 IBARRA

Bulegoa Tel. 943 67 58 78 - 639 72 42 60
Tailerra Tel. 639 72 42 61

- ELEKTRIZITATE INSTALAKUNTZAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZAPENAK
- LANTZAGETAKO KONPONKETAK
- ARGINDAR KUADROAK

PINTURAS IRAZUSTA

"MARGO APAINKETA"

943 67 37 65
Mugikorra: 659 57 59 78 • Julian Gayarre, 29-3. esk. • IBARRA

LABORE eta eskulan ikastaroak

GAZTE

LABORERAK
ESKULANAK
ARTISAUTZAK

Baserritar jantziak neurria

Euskal Herria kalea, 1 zbk. - 20400 IBARRA • Tel. 943 67 00 87

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Alegiako Haur Eskola

Egunkari honetan joan den ostiralean agertutako idatzi bat irakurri berria dut eta hari erantzun nahi diot: Franconin haur eskola jartzea nahi duten iritzia guztiz errespetagarria eta arrazoizkoa iruditzen zait.

Hala ere, apaiza eta parrokiaren erabakiak ere, nahiz eta batzuen interesekin bat ez etorri, bidezkoak direlaokan nago.

Bada zerbait zure gutunean gustatzen ez zaidana. Bertan azaltzen duzuna, konturatu ez bazara ere, demagogia hutsa

da; manipulazioa, mesprezua eta inposaketaren bitartez, presiopean jarri nahi dituzu zurekin bat ez datozenak.

Bitxia da gero jarrera intolerante horretatik ulermena aldarrikatzea, oraindik bitxiagoa Burdin Arokoa baino lehenagokoa den diskurtso batetik eliztarrei Erdi Aroan daudela leporatzearena.

Zure idatzian, gorrotoaz gain, topiko ugari aurkitu ditut eta errespetu eza handia.

Mesianismo ukitu bat ere nabari da, baina tira, neu ere horrelaxe puztu izan naiz egi bakarraren jabe nintzela uste nuenean.

JOSE MANUEL GARMENDIA ▶ ALEGIA

Haur Eskolaren aurka?

Sineskaitza egiten zait haur eskola proiektuaren egoera. Ez pentsa gurasoen kapritxo bat denik; beharra dagoelako ari gara ahalegin horretan. Franconin kokatzea ere ez da gure kapritxo bat, beste lekuren batean jartzeko aukerarik balego, herria aztertzea besterik ez dago ondorio horretara iristeko. Ez ginateke hain burugogor ariko ahalegin horretan. Eta gainera, zer hobeto daukaguna aprobetxatzea baino.

Dirua botatzeko adina du Alegiako herriak ba! Ez digu

inori ezer kendu nahi, ez inor bidali nahi, ez ezer nahastu nahi, gurea ere baden eraikuntza bat hango ekintzekin elkarbanatzea besterik ez dugu eskatu hasiera-hasieratik.

Apaiz jaunak edo dena dela-koak dituen ondasunak aztertzen hasi eta hara zer nolako zerrenda! Zentroa, zine aretoa, apaizetxe handi eder hori, ermita, hain eder eta zoragarri jartzen ari diren eta hainbeste diru gastatzen ari diren eliza, eta, azkenik, besteak beste, dirudienez berea dela uste duen Franconi fundazioa. Ikusten denez ez dute ez leku eta ez diru falta handirik ere, eta horrenbeste komeri Franconi

fundazioa haur eskolarekin elkarbanatzeko. Asko daukanak gehiago nahi duela! Hori bai hori egia.

Eta gu hemen, geure haurrak ondo eta egoki egon daitezen, eraikuntza bat lortzeko horrelako komeritan, ahal dugun moduan hara eta hona, aiton-amonei haurrak utziz, lagunak konprometitz, trenez edo autoz beste herri bateko haur eskoletara emanez... Gaur egun hain beharrezkoa dugun lana egin behar izateko, egunero haurrari jantziak eta lo egiteko leku bat eman behar nahi badiegu behintzat.

Ez dago eskubiderik!

MAIDER ZABALA ▶ ALEGIA

SEGA ▶

Goikoetxea eta Ormaetxea segalariak Gipuzkoako finalean

Finalean ariko diren beste bi segalariak biharko kanporaketan ezagutuko dira



lazio txapelketan bigarren postuan sailkatu zen Ormaetxea. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Uztailaren 25ean Larraitzen jokatuko dute Gipuzkoako Segaxapelketako finala; bertan ariko diren bi segalari igandean Errezilen izandako kanporaketan ezagutu ziren: Andoni Goikoetxea gazteluarra eta Jesus Mari Ormaetxea, Urki, orendainarra. Azken hori bigarren postuan sailkatu zen iazko Gipuzkoako txapelketan. Bost segalari hartu zuten kanporaketan; ordu erdian belar gehien moztu zuten lehenengo biak sailkatu ziren finalerako. Goikoetxeak 1.880 kilo mozteko lortu zuen, Ormaetxeak, berriz, 1.750. Hirugarren sailkatu zen segalariari 3,30 kilo atera zizkion Ormaetxeak. Lortutakoarekin ez da oso gustura geratu orendainarra: «Urduritasuna zela-eta ez nintzen entrena-

menduetan bezain ondo aritu; urduritasunak ez dit ahal nuen erdia ere ematen utzi», azaldu du. Era berean, orain indarrean jarri den legedi berria dela eta, «txukun ebakitzea ere kontuan hartzen da eta gu lehenagoko moduan ohituta gaude; horrek lana zailtzen du», dio. Finean, «hobeto mozteko denbora gehiago behar da», gaineratu du.

Finalean ariko diren beste bi segalariak bihar Zizurkilen, Zaidu azpiko baserrian, izango den kanporaketan erabakiko dira. Bertan, bost segalari izango dira, tartean, Gariokitz Etxeberria amasarra, Andoni Dorronsoro ikaztegiatarra eta Mikel Aranalde gazteluarra. Ordu erdian ahalik eta belar gehien eta txukunen moztu beharko dute segalariak finalerako sailkatu nahi badute. Kanporaketa 17:30ean hasiko da.

BALIARRAIN ▶

Azkainera UEMA egunera autobusez

Azkainen UEMA eguna izango da gaur; bertara baliarraindar ugari joango dira Udalak doan antolatutako autobusean. Herriko plazatik 10:00etan abiatuko dira; Azkainen mahaingurua, ekitaldi ofiziala, herri bazkaria, Kiki eta Moko pailazoak eta Txan magoa izango dira, besteak beste.

ORENDAIN ▶

Ordutegi aldaketa KZguneko ikastaroetan

KZgunean eskainiko diren ikastaroetan ordutegi aldaketa egon da; ekainaren 21etik 25era 16:00etatik 18:00etara eta ekainaren 28tik uztailaren 2ra 17:30etik 19:30era edo 19:30etik 21:30era izango dira ikastaroak. Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago oraindik; izena, udaletxean eman daiteke.

ASTEASU ▶

Ken 7 eta Sei urte taldeak ariko dira gaur Kiroldegian

Ken 7 eta Sei Urte taldeen kontzertua izango da gaur Asteasun, Kiroldegian inaugurazioko ekitaldiei bukaera emanez. Kiroldegian bertan izango dira emanaldiak, 23:00etatik aurrera, 6 euroren truke.



IBARRAKO UDALA

Ibarra gazte festetan
alaitasuna eta errespetua nagusi!

Tel.: 943 67 11 38 • ibarra@udal.gipuzkoa.net



UZTURPE IKASTOLA

“Dabilen herriari ez zaio
goroldiorik lotzen.
ONDO PASA ZUEN JAIK!”

Egialde, 2 • IBARRA • Tel: 943 67 12 99

LEITZA ▶ GIZARTEA

Santa Krutz ermitako teilatuan teila berria jartzen ari dira

Lanak asteartean hasi ziren eta astebeterako bukatuta egotea espero dute, eguraldiak horrela laguntzen badu



Santa Krutz ermitan langileak teila berritzen. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Santa Krutz ermitan teilatu berritze lanak egiten ari dira egun hauetan, zehazki, astear-te ezkerro, hilak 15.

Teilatuan, lehenago zuen teila zaharra kendu eta berria jartzen ari dira, teila frantzea de-

lako. Lantegi horretan Balda enpresa ari da eta lanen aurrekontua 13.823,28 eurokoa da, hots lehengo 2.300.000 pezeta.

Berrikuntza lan hauek egin beharrezkotzat jo zituzten «teilatuan itzuzurak zeuden aspal-diskotik eta aurten igaro berri dugun neguarekin, asko onda-

tu da. Gainera, hain kaskoan egonik, haizeak ere teila erraz harrotzen zuen eta». Materiala igotzeko zailtasunak bazeuden ere, bidea piska bat moldatu zuten eta kamioiez baliatu ziren horretarako. Dena den, kendu duten teila zaharra «gero bidean botako da, dau-den zuloak betez eta saneatzeko, izan ere, hainbat puskatan lohia ere erraz eratzten baita», diote parrokiakoek.

Lanak jada astelehenerako bukatuta egonen direla esan diote HITZari, han bertan.

Horren harira, parrokiatik bertatik herriarrei dei egin zaie, astearterako auzolanera joateko, hain zuzen ere, behin lanak bukatuta, hango atariak eta inguruak obra-hondakinez garbitzera joateko. Borondatea izan, eta, lan egin nahi duenak, beraz, izena egun hori baino lehen, parrokiaren eman behar omen luke.



Erletako azken eguneko jostaketak

LEITZA ▶ Argazkian Erleta eskolako ikasleak ageri badira ere, Areson ere, biak ala bi herrietan, ikasturteko azken eguneko festa izan zuten atzo eguerdiarte. Herri kiroletan ez ezik, umeek zaku-saltoan, arraultza-jokoan, uretan nahiz irinetan goxoki bila... ere parte hartu zuten, baita beraiek sortutako dantzako koreografiak egin ere, Aresoko kasuan. J. ASTIBIA

... eta Areson mahai inguruan dastaketa

ARESO ▶ Eta noski, hainbeste ariketa egin ondoren, hamaiketako egiteko garaian ere ez zen atzera gelditu zenik izan: hor ere denak parte-hartzaile eta txapeldun. Irudiak kasu honetan Aresoko eskolakoak dira. Bi eskoletan 6. mailako ikasleek ikasketak bukaerako saria jaso zuten, hurrengo urtetik aurrera guztiak elkarrekin izanen direlarik. Uda on! J. ASTIBIA

GUTUN@K ▶



Leitzako alderdi politiko guztiei:

Ilegalizatutako alderdiaren botoe-malea naiz, eta dei bat egin nahi nieke Leitzako alderdi guztiei: hausnarketa bat egin dezagun. Zer nolako egoera bizi dugu herrian?

Larrainek, ilegalizatutako alderdiak, lazko hauteskundeak irabazi zituen, baina postua kendu ziguten. Aralar ezarri zen boto gehien bildu zituen talde gisa, eta Udaleko kargua hartu zuen.

Larrain behin eta berriz bildu da EA eta Aralar taldeen herrian denek batera lan egiteko, baina EA taldekoek diote ilegalizatutako alderdiarekin ez dutela lanik egingen, herriaren nahiaren kontra joatea baita. (UPN taldearekin ez dugu inolako kontakturik izan; izan ere, horien esanetan, nahi dugulako omen gaude ilegalizatuta). Hori guztia EAK bidalitako gutun batean azaltzen da, EAKo jende gazte-ak sinatuta.

Nire ustez, ilegalizatuta dagoen alderdi horri botoa eman diogun guztiok badugu zer esana, eta beste edonork bezalako eskubide bera dugu gure iritzia plazaratzeko. Egin berri diren hauteskundeetan berriro ere irabazte atera da ilegalizatutako hautagaia; herriaren nahia ikusi da, eta ez gorrotoa. Baina, dirudienez, norbaitentzat traba handia egiten duten pikor horiek bezalakoak gara, gukxi en espero den momentuan ateratzen diren horietakoak.

Birritan irabazi arren postua kendu diguzue; zer egin horren aurrean? Gure alde botoa eman duten guztiak herriaren kontra al daude? Faborez, nahikoa da jada! Ez nago inoren kontra, baina bada garaia denok mahai baten inguruan esertzeko, hitz egin eta hausnartzeko denbora hartzeko, eta denon artean zerbait adosteko: herriarentzat onuragarria den zerbait, abertzale guztiok, denok batera, herriaren alde lan egin dezagun!

Aralarri esaten diot ez dudala deus beren kontra, eta norbera libre dela nahi duena egiteko; baina ez zait egokia iruditzen hauteskunde garaian ardi guztiak jan behar dituen otsoa bezala azaltzea. Larrainek ez omen zuen deus egitekorik; orduan, zergatik irabazi dugu?

Hasiera batean ez dira etsai bezala agertu, amankomuneari interes asko omen ditugu. Baina gauza bat da esaten dena eta beste bat egiten dena. Presoen aldeko kontzentrazioetan —jada aske egon behar zuten presoak (eritasun-egatik edo beren zigorraren 3/4 beatek dituztelako) eta oraindik espetxeratuak daudenak—, ez zerate azaldu ere egiten eta gure nahia berdina zen, ezta? Badaezpada diot, kontzentrazioak hileko azken ostiralean izaten dira.

M^o DOLORES GONZALEZ ▶ LEITZA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika: 67 53 90

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aurrerik aldirak: 30 07 32

▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Quetglas, Euskal Herria,

46, (Ibarr). 943 67 32 74.

Erbiti O., Lizarraga, 7, (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Deia. 687 41 00 22

anoeta-Deia@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LAN ESKAINTZA

Neska. Neska bat behar da

etxeko lanak egin eta ume bat

zaintzeko. 943 67 58 65

(19:00etatik 21:00etara).

Zaintzailea. Goizez lau ordutan

emakume heldu bat zaintzeko

pertsona bat behar da.

Telefona: 619 02 42 86.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 19a, larunbata ▶ II. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

beroa

23

hotzena

15

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

23

hotzena

15

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

23

hotzena

15

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

23

hotzena

15

BIHARKO
EGURALDIA

goizez

arratsalde

23

hotzena

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albizur, Alegia, Alizca, Alzo,
Ameseta, Ansoeta, Balaran, Berasteg, Elduain, Hernialde,
Ibarra, Irion, Larrat, Leizor, Lizartza, Orendain, Oresa,
Tolosa, Villabona, Zuzkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurilaritza.
Kultura Saila

Eusko
Jaurilaritza.
Kultura Saila

Eusko
Jaurilaritza.
Kultura Saila

Eusko
Jaurilaritza.
Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Baliarrain. Azkainen izango den UEMA egunera irteera 10:00etan herriko plazatik.

Villabona. AHTa pasatzen den inguruetatik ibilaldia 09:00etan Gaztetxetik. Onddo Gazte Asanbladak antolatuta.

Tolosa. Jubilatuen egoitzako langileen sinadura bilketa, Foru Aldundiak atentzioa merketu nahi duela salatzen. 11:00etatik 13:00etara Jubilatuen Egoitzan, Trianguloan, San Frantziskon eta Plaza Berrian.

Tolosa. Sanjoanetako azoka berezia 08:00etatik 14:00etara: produktuen erakusketa eta salmenta, Trianguloan, Zerkausan, Berdura plazan, Plaza Berrian eta San Frantziskon.

DANTZA

Tolosa. Kultur Etxeko dantza tailerrekoen emanaldia, 16:30etik aurrera Leidorren.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Kultur Etxeko tailerretako ikasleen lanen erakusketa Aranburun.
Tolosa. Carmen Gorbearen koadroak Saikin tabernan.
Tolosa. Charo Berraren margolanak Lanbroan.

MUSIKA

Asteasu. Ken Zazpi, kiroldegian, 23:00etatik aurrera, inaugurazio ekitaldiak amaitzeko.
Ibarra. Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia plazan, 19:30ean.

Ibarra. Nekin eta Latex taldeen kontzertua, plazan 22:30ean.

KIROLA

Pilota.
▶ Labaka-Erasun/Maiz-Alkorta (pre-benjaminak).
▶ Matxinea-Salbarredij/ Tolosa-Ibarzabal (benjaminak).
▶ Martin-Urbieta/Jauregi-Labaka (alebinak).
▶ Olaetxea-Zinkunegi/Ortozgoiti-Irurzun (infantilak).
▶ Madina-Irazusta/Ibarguren-Artola (kadeteak).
▶ Pikabea-Senperena/Exeberria-Lasa (jubenilak).
▶ Aranburu II/Arrieta (seniorrak).

ZINEMA

Tolosa. Troya, Leidorren, 19:30ean eta 22:30ean.

Agur Loatzo

TOLOSALDEA ▶ Ikasturte amaierako kontzertuak ematen ari dira egunotan



Asteazkenean Larraulen eskaini zuten kontzertuko irudia. G. AZKUE

G. AZKUE

Latzo musika eskolako haurrek agur esan diote ikasturteari. Baitarako eskoletan ikasturte amaierako festak burutu dituzte aste guztian zehar.

Asteazkenean izan ziren lehen kontzertuak; Adunak kultur aretoan, eta, Larraulen udalarekin, bertako eta inguruko haurrek instrumentuak astindu zituzten guraso eta gainerako lagunen aurrean, ikasturte guztian zehar ikasitakoa erakutsi behar baitzuten.

Ostegunean Alitzoko eta Iru-rako haurren txanda izan zen,

erretoretxean eta elizan bildu ziren ikasleak, hurrenez hurren.

Atzo, berriz, Villabonako haurren txanda izan zen. Gurea zinemaren bildu ziren ikasle eta gurasoak ikasleen kontzertua entzuteko prest. Kitarrak, tronpetak, pianoa, trikitixa edota kantuak entzuteko parada izan zen herri gehienetan.

Eta Loatzo musika eskolako haurrak entzuteko azken aukera gaur izango da, Ibarako Gazte Festetan bilduko baitira talde instrumentalak herriko plazan. 19:30etik aurrera hasiko dira musika ikasleak emantziarekin.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK
Pako eta Rosario.

Zorionak zuen urrezko ezteietan. Familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Unax Ibarbia. Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat aitonen eta osaba-izeben partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaiaberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
Mila esker!



ILEAPAINDEGIA
honekin
honekin_estilistak@hotmail.com

Pintor Lekuona, 2
943 65 24 30
TOLOSA



San Joan asteko ordutegia
Astelehena 15:00-20:00
Asteartea eta Asteazkena 9:00-13:00 / 15:00-20:00
Ostirala 9:00-20:00 (egun osoan irekia)
Larunbata 9:00-13:00

EZ JOAN ITSUSI, APAINDU SANJOANETAKO

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitez harpidedun!

Egun gutxi geratzen dira!

943 30 43 46

astegunetan
(08:30etik 20:30era)
larunbatetan
(09:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko
eta leizaldeko

hitza